

BALIO PROPOSAMENA

Taldea: Kroketak

Idea: Gure taldeak euskal tradizioa sustatzeko baserri bat ipintzea erabaki du aterpetxe modura. Egonaldiaren truke, ohi dena baino diru kopuru txikiagoa ordainduko dute. Izan ere, bezeroek baserriko lanak egin beharko dituzte: baratza landu, uzta bildu, abereak elikatu...

Alde batetik, gure zerbitzuak euskal tradizioak ez galtzea ekiditen du. Horrez gain, aisialdi desberdin batez gozatzeko aukera ematen dugu, diruz urri dabiltzanek ere esperientzia hau bizi dezaten. Bestetik, lehiakideengandik bereiz gaitezke gure zerbitzua berria delako, prezio baxua duelako, euskal kulturaren inguruko kontzientzia hedatzen dugulako eta baserriko bizimodua nolakoa den erakusten dugulako. Bezeroak aterpetxean egotearen ordainez, prezio baxuagoak ordainduko dituzte baserriko munduan murgilduz eta bertako zereginak burutuz.